



## BALIO SOZIAL ETA ZIBIKOEN EREMUA

### 1.- SARRERA

*Balio Sozial eta Zibikoen* eremua lagungarri izango da, hein handi batean, pertsona gisa ahalik eta gehien garatzea, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetuan heztea eta desberdinak onartuko dituen gizarte libre batean bizimodu arduratsu bati ekiteko prestatzea ahalbidetuko dien hezkuntza jasotzeko neskek eta mutikoek duten eskubide unibertsala bermatzeko. Era berean, ikasleen prestakuntza sendotuko du herritar parte-hartzaile eta inplikatu gisa joka dezaten gizarte demokratikoaren kohesioa, defentsa eta garapena hobetzearen alde.

Prestakuntza horren barruan sartzen da gaitasun sozial eta zibiko pertsonalak, pertsona artekoak eta kultura artekoak bereganatzea, gero eta dibertsagoa den euskal gizartean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzeko.

Eremuak gogoeta egitera bultzatzen du eta pertsonaren duintasunarekin, besteekiko errespetuarekin eta bizikidetzako balio sozialekin zerikusia duten ikaskuntzak proposatzen ditu. Behin bere nortasun pertsonala eratuta duenean, mutikoa edo neskatoa prest dago bestea ezagutzeko. Horregatik, beste pertsonetikiko enpatia, errespetua eta tolerantzia bultzatu behar dira, eta oinarritzko giza eskubide eta betebeharren arabera erlazionatzeko eta jokatzeko beharrezkoak diren trebetasunekin zerikusia duten elementuak proposatzen dira. Horrela, orientabideak ematen zaizkie ikasleei gizarte-errealitatea uler dezaten, gogoetaren bidez gatazkak konpon ditzaten, hobetzeko elkarrekin mintza daitezten, balio unibertsalak errespetatu ditzaten, beren balio-sistema propioa sor dezaten eta gizarteko bizitzan aktiboki, bakez eta demokratikoki parte har dezaten.

*Balio Sozial eta Zibikoak* eremuak lagunduko egingo die arazoei aurre egiten, taldean proiektuak egiten eta esperimendatzen, era burujabean lan egiten, erabakiak hartzen eta hautabide pertsonalak sortzen. Eremu honen irakaskuntzak eskatzen du irakasleak modu kolaboratiboan elkarri laguntzea eta ikasleen arteko lankidetzak akuilatu behar dituela, ideia bat beti gogoan harturik, alegia, pertsona guztiek dituztela beren ahalmenak, izan ditzaketen mugak gorabehera. Ikasleei baliotsu sentiaraztea eta besteei laguntzea ahalbidetuko dien gaitasunak garatu behar dituzte eta, era berean, ezagutuak sentitu behar dute eta jarrera irekia erakutsi beren arazoak konpondu behar dituztenean laguntza jasotzeko.

Ikasgelan gauzatzen diren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak ikasle guztien parte-hartzean oinarritu beharko dira, parte-hartzaile guztiak baliotsu eta kapaz senti daitezten. Horregatik da garrantzitsua zereginak gauzatu behar dituztenean elkarren arteko lankidetzak proposatzea, ikasleek, horrela, gogamenak, sentimenak eta gertaerak testuinguru sozial eta kultural desberdinetan aztertzeko, adierazteko eta interpretatzeko aukera baitute, bai-eta mintzaira eta komunikazioa erabiltzeko aukera ere jokabideak erregulatzeko eta besteekin harremanak izateko. Juzku moraletan oinarritutako erabakiak hartzearen eta elkarren artean arazoak eta gatazkak ebaztearen bitartez, hainbat gogoeta-prozesu jarraitzeko, arazoibide logikoak



erabiltzeko eta, azkenik, arazo sozial eta historikoak kritikoki aztertzeko eta juzkatzeko beharrezkoak diren gaitasunak bereganatzen dira.

## 2.- HELBURUAK

1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutzea eta finkatzea bere pribatutasun espazioarekin, gainerakoen nortasuna errespetatuz eta autoestimua garatuz, bizitza pertsonalari eta taldekoari era positiboan aurre egiteko.
2. Egoera hasiberrian bada ere, balio-sistema propio bat lantzea eta eratzea, norberaren bizi-proiektuaren esparru izan dadin, arrazoibidea, emozioen auto-erregulazioa eta enpatia erabiltzearen bitartez egoerak ikuspegi moraletik juzkatzeko, behar bezainbateko burujabetasunez eta objektibotasunez.
3. Eguneroko bizimoduan eta taldeko harremanetan, ikasgelan, ikastetxean eta ingurune hurbilean burujabetasunez eta arduraz jokatzeko, besteekin inklusiboki erlazionatzeko trebetasun komunikatiboak eta sozialak baliaturik.
4. Herritarrek parte hartzeko eta antolatzeko dituzten hainbat modu ezagutzea, Euskadikoak batez ere, erreferentzia hurbileneko taldeen bizimoduan lankide izanez (familian, eskolan, auzoan, herrian), eta norberaren zein besteen ekarpenak balioetsiz, gainerakoekin partekatuz eta elkarlanean aritzeko.
5. Bizikidetzaren arauak proposatzea, prestatzea eta errespetatzea, elkarriketaren eta bitartekaritzaren bidez gatazka eraldatzeko eta guztien artean ingurune erkide jasangarri bat eraikitzeko.
6. Generoa, jatorria, etnia, sinesmena, desberdintasun sozial eta pertsonala, orientazio afektibo-sexuala, gaitasun desberdinak edo beste zeinahi arrazoiengatik sortutako bidegabekeriak eta diskriminazioak eragindako gatazka egoerak identifikatzea eta aztertzea, Giza Eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren zuzen eta berdintasunezkoa eragozten duten jokabideak arbuizatzearen.
7. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik, haurren eskubideei buruzko Konbentziotik eta Estatuko zein autonomia-erkidegoko legeriatik eratorritako diren eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, beren gain hartzea eta aldezteak, haien oinarrian dauden balioak identifikatu, berdintasunezko jarrerak sustatu, eta diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzeko, bereziki emakumezkoen eragiten dietenak, irizpideak izan ditzaten pertsonen eta taldeen jokabideei buruzko balioespen etikoak egiterakoan.
8. Ingurumenaren egoerari buruzko kontzientzia hartzea eta kontsumo osasungarri eta arduratsurako jarrerak garatzea, baita ingurunea errespetatzeko eta zaintzeko ere, gainerakoekiko zaintza eta errespetua barne direla, bide-hezkuntzaren bitartez, haien kudeaketan erantzukizunez parte hartzeko.



### 3.- EDUKIAK.

Lau multzotan bilduta aurkezten dira edukiak: «Zeharkako eduki erkideak», «Pertsonaren nortasuna eta duintasuna», «Ulermena eta errespetua pertsonen arteko harremanetan», eta «Bizikidetzaren eta balio sozialak». Horri guztiari, gainerako curriculumetan bezala, zeharkako eduki erkideen multzo bat erantsi zaio: zeharkako gaitasunak lortzeko baliabideak.

Edukiak modu irekian planteatzen dira, irismena guztiz zehaztu gabe, hala, ikastetxe bakoitzean, testuinguru desberdinen arabera egokitu ahal izan daitezkeen. Adierazpen-edo kontzeptu-edukiek, gehienetan, erreferentzia irekiak adierazten dituzte, gero irakasleak zehaztu beharko dituenak. Prozedura- eta jarrera-edukiek, berriz, hurrenez hurren, itxi gabeko erreferente operatiboei eta balioespenen ingurukoei erantzuten diete; hainbat ibilbide desberdin erabili daitezke haiek lortzeko. Aldi berean, eduki kopuru handi samarra da, baina kontuan izan behar da beren arteko loturak dituztela askok eta elkarrekin eta multzoan garatzen direla hainbat eginkizunetan. Gainontzean, bistakoa dirudi ikasgai hau, hain zuzen ere, mota horretako edukietan oinarritzen dela, jokabide zibiko-sozialekin zerikusia duten lorpenak erdiesteko helburuarekin. Edukiak zehazteko orduan tarte handia eskaintzen dutenez, alegia, banakako aldagarritasunaren eta testuinguruaren arabera egokitzeko aukera handia dagoenez, arrazoizkoa da lorpen horien interpretazio-marjina ere zabala izatea; eta horrek ez du ahultasuna adierazten, baizik eta desberdintasunari ikuspegi inklusibo batetik ekiteko aukera paregabea.

#### 1. MULTZOA. ZEHARKAKO EDUKI ERKIDEAK

Eremu eta materia guztietako oinarrizko eta zeharkako gaitasun erkideekin lotura duten edukiak dira. Eduki-multzo honetan biltzen diren prozedura eta jarrerek xede hauek dituzte:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, biltegitratzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta sintetizatu), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatu, definitu, laburbildu, azaldu...).
- Informazioaren balorazioa eta adierazpena (argudiatu, justifikatu...)
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideia, zeregin eta proiektuen plangintza eta bideragarritasunaren azterketa.
- Planifikatua egikaritzea eta, kasua bada, doitzea.
- Planifikatu eta egin dena ebaluatzea eta hobekuntza proposamenak garatzea.
- Lortutako emaitza komunikatzea.
- Harremanen garapena eta pertsona arteko komunikazioa (enpatia eta



asertibitatea).

- Lankidetzeta eta elkarlana taldean ikasteko zereginetan.
- Giza eskubideak eta gizarte egiuneak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Gorputz-dimentsioaren auto-erregulazioa.
- Emozioen auto-erregulazioa.
- Estilo kognitiboaren auto-erregulazioa.
- Portaera moralaren auto-erregulazioa.
- Motibazioaren eta nahimen-indarraren auto-erregulazioa.

## 2. MULTZOA. PERTSONAREN NORTASUNA ETA DUINTASUNA

- Pertsonaren nortasuna: ezaugarri fisikoak, kulturalak, sozialak.
- Pertsonaren duintasuna. Auto-kontzeptua eta auto-balioespena.
- Bizi-proiektua ulertzeko era desberdinak. Muga eta traba pertsonalak, familiakoak, gizartekoak eta lanekoak.
- Asertibitatea eta ematen duen indar positiboa pertsona arteko harremanetan. Erabaki asertiboak hartzeko estrategiak.
- Estrategia sortzaileak Albo-pentsamendua.
- Sentimenduak eta emozioak; identifikazioa eta adierazpen positiboa.
- Enpatia.
- Teknika kognitiboak. Aplikazioa.
- Inplikazioa gure bizi-ingurunean. Alderdi praktikoak eta etikoak.
- Ekimen pribatua eta ekimen publikoa.
- Taldean lan egiteko arauak.
- Taldeko lanaren garapen bidezkoa.
- Lanari buruzko konpromiso argudiatuak adostea.
- Ikasketa- eta familia-esparruko konpromiso pertsonalari buruzko arazoak taldean ebaztea.
- Norberaren eta besteen bertuteak eta mugak onartzea.
- Besteen bizi-proiektuak errespetatzea.
- Pertsonaren duintasuna arrazoi gisa hartuta errespetua eskatzeko jarrera.



- Asertibitatea positiboki balioestea.
- Teknika kognitiboen balioespen positiboa.
- Erantzukizuna eta ahalegin pertsonala eskolako lanak egiterakoan.
- Burujabetasun arduratsua gomendatutako zereginak garatzean, arauak betetzean eta erabakiak hartzerakoan, norberaren ekintzen ondorioak bere gain harturik.
- Ekimen pertsonalaren (ekintzailtza) balioespen positiboa.
- Hainbat motatako eskolako lanak egitean, hobetzeko grina izatea.

### 3. MULTZOA. ULERMENA ETA ERRESPETUA PERTSONA ARTEKO HARREMANETAN

- Komunikazioa. Faktore indartzaileak eta distortsioa eragiten dutenak.
- Aurreiritzia.
- Komunikazio trebetasunak.
- Nola lortu asertibitatea.
- Pertsonen arteko harreman orekatuak eta oparoak, interes eta ikuspegi desberdinak uztartzeaz gainera, elkarbizitza eta kultura desberdinen integrazioa gauza daitezen.
- Besteen mezuak (hezitzaileak, gurasoak, ikaskideak, lagunak,...) interesez eta errespetuz entzuteko jarrera.
- Pertsona, balio eta kultura desberdinak berariaz estimatzea.
- Elkarrizketarako irekita egotea ingurune hurbileko pertsonekin.
- Taldeko lana norberak egindakotzat hartzea.
- Harreman bidezkoak eta berdintasunezkoak.
- Erantzukizuna eta elkartasuna taldean lan egitean edo beste eginkizun kolektibo batzuetan.
- Duintasuna aldezteko eta desberdina izateko eskubidea defendatzeko konpromisoa.



## 1. ETA 3. MULTZOEI DAGOZKIEN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Norberaren nortasuna bereiztea duintasunean eta bere buruarekiko eta ikaskideekiko errespetuan oinarritutako estilo pertsonal bat sendotzearen bitartez.
2. Norberaren potentziala garatzea, banakako eta partekatutako arrakastak lortzen ahaleginduz, interakzio positiboen eta bere buruaren irudi errealista eta onargarriaren bitartez.
3. Erabakiak burujabetasunez, sormenez, ongi pentsatuta eta arduraz hartzea arazoan aurrean sortzen diren zailtasunak kudeatzeko eta frustrazioak eta sentimendu negatiboak gainditzeko.
4. Emozioak eta jokabideak erregulatzea haiek bizitzan aukeratutako helmugetara zuzentzeko.
5. Pentsamendu eraginkorra eta burujabea egituratzea, informazioa bildu eta ulerturik, inguruan duen errealitateari buruz ikuspegi desberdinetatik gogoeta egiteko eta, hortik abiatuta, hura hobetzeko proposamenak lantzeko.
6. Burujabetasuna eta ekintzaitza-ahalmena garatzea lorpen pertsonalak erdiesteko, era berean, ondasun erkideaz arduratzen dela.
7. Komunikatzea, adieraztea eta eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan burujabetasunez, arduraz eta enpatiaz jardutea, komunikazioa eragozten duten faktoreak gaindituta.
8. Asertibitatea erabiltzea.
9. Beste pertsona batzuekin mintzatzea pentsamendu partekatuak sortuz, argudiorik onena aurkitzeko.
10. Errespetuz eta malgutasunez jardutea, desberdintasunak ulertuz eta onartuz.
11. Gizarte-aurreiritzien ondorioak kritikoki aztertzea, eragiten dituzten arazoei eta sufritzen dituzten pertsonen sortarazten dieten eraginei buruz gogoeta eginez.
12. Taldeko giroa hobetzen laguntzea, lankidetzaz jarrerak erakutsiz eta errespetuzko harremanak ezarriz.



#### 4. MULTZOA. BIZIKIDETZA ETA BALIO SOZIALAK

- Erantzukizun pertsonala eta soziala.
- Altruismoa/Elkartasuna versus norberekeria.
- Dilema moralak.
- AJA: ikastetxea eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko ingurune bermatzaile gisa.
- Balio sozial aitortuak, balio menderatzaileak eta giza eskubideak.
- Emakumeen eta nesken diskriminazioari buruzko datuak.
- Demokrazia. Herritarren parte-hartzea Euskadin.
- Publikoa eta pribatua. Lankidetzaren erkidea gastu erkideetan.
- Balio unibertsalak: giza eskubideak. Haurraren eskubideak. Autonomietako araudia.
- Eskubideen urraketa: zergatik ez diren betetzen eskubide unibertsalak.
- Garapen jasangarria.
- Segurtasun-protokoloak Interneten erabileran.
- Datuen pribatutasunerako eskubidea.
- Ciberbullying-a.
- Bide segurtasuna, segurtasuna guztiontzat.
- Egoera desberdinetako kasu errealen (pertsonala, akademikoa, lanekoa, soziala) bilaketa eta azterketa kritikoa, taldean egina.
- Dilema moralen kasu praktikoak. Taldean ebaztea.
- Balio sozialen azterketa kritikoa.
- Ikastetxeko bizitza demokratikoan parte hartzea.
- Egoera polemiko eta eztabaidagarrietan, ikuspuntu eta perspektiba desberdinak aintzat hartzeko jarrera.
- Gatazkei elkarrizketan oinarritutako prozedura demokratikoz ekiteko jarrera, ekimen eraikitzaileen bidez eta besteen balizko ekimenak eztabaidarako onartuz.



- Indarraren erabilera berariaz errefusatzea harreman pertsonal eta politikoetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko.
- Giza eskubideak berariaz aitortzea.
- Haurren eskubideen aitormen positiboa.
- Diskriminazio eta bidegabekeria soziala berariaz errefusatzea.
- Herri behartsuenekiko elkartasuna, bereziki barne-askatasunen zapalkuntzaren biktima direnekin edo nazioarteko erlazio ekonomiko bidegabeak jasaten dituztenekin.
- Gizarteko kide ahulenekiko elkartasuna: gaixoak, adinekoak, langabeak, tratu txarrak pairatzen dituztenak, etab.
- Adierazpen- eta iritzi-askatasun eskubideen eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunaren aitortza esplizitua.
- Genero berdintasunaren berariazko aitortza.
- Printzipio eta erakunde demokratikoak errespetatzea.
- Zerbitzu publikoen balioespen positiboa.
- Zerga bidezko kontribuzioak betebehar demokratiko gisa onartzea.
- Izadia eta bizitokitza duten ingurumena zaintzea, baita irteerak eta txangoak egitean ere eta herritarren kanpainetan elkarlanean aritzea.
- Ohitura kontserbazionistak beretzea hainbat motatako baliabide naturalak erabiltzerakoan.
- Baliabide naturalak gizadiaren gaurko eta etorkizuneko ondare erkide gisa balioestea.
- Sarearen bitartez praktika iraingarriak eta esesleak berariaz errefusatzea.
- Informazio eta publizitate mailan hautemandako manipulazio kasuen azterketa kritikoa.
- Bide-segurtasuneko arauak betetzeko konpromisoa.





#### 4. MULTZOARI DAGOZKION EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Lankidetzan arazoak ebaztea, gainerakoekiko jarrera irekia erakutsiz eta ikuspuntuak eta sentimenduak partekatuz.
2. Bizikidetzara- arauak proposatzea, prestatzea eta errespetatzea, elkarrizketaren eta bitartekaritzaren bidez gatazka eraldatzeko.
3. Erantzukizun, elkartasun eta justizia sozialaren zentzua ulertzea, gogoeta-, sintesi- eta egituratze-ahalmena erabilia.
4. Dilema moral bat zer den ulertzea, eta dilema moralak ebaztea kultur desberdintasunen inguruko aurreiritziak hautemateko.
5. Norberaren balio-sistema elaboratzea, ikaslearen eskubideak eta betebeharrak bere gain harturik, eskolako egoerei buruzko epai moralak eginez eta, kasu praktikoetan, dilema moralak ebatziz.
6. Eskubide berdintasunaren aldeko aldarrikapena ez ezik, jaiotza, arraza, genero, orientazio afektibo-sexual, erlijio, iritzi edo beste zeinahi baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik baztertuta ez izateko eskubidea errespetatzea eta gizarte-ingurunearen azterketan aplikatzea.
7. Adierazpen- eta iritzi-askatasun eskubideak eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna babestu beharraren garrantzia adieraztea, azterketa eta sintesi lanak eginez.
8. Haurren eskubideen garrantzia ulertzea, egoera errealak balioetsiz eta, gizarte-testuinguruan, mutikoen eta neskatoen eskubide berdintasuna errespetatuz.
9. Bizitza zibikoan aktiboki parte hartzea gizonen eta emakumeen berdintasuna balioetsiz, bai eskubideei eta bai erantzukidetasunari dagokionez.
10. Gizon eta emakumeen eskubide berdintasuna eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan duten erantzukidetasuna ulertzea eta balioestea, gogoeta-, sintesi- eta egituratze-prozesuetan oinarritutako argudioak emanez.
11. Beste aukera batzuk errespetatzen dituen norberaren balio-sistema sortzea eta eskubide unibertsaletan oinarritutako juzku moralak egitea.
12. Demokraziaren ezaugarriak ezagutzea eta adieraztea eta balio zibikoaren garrantzia euskal gizarte demokratikoan.
13. Herritarrek, beren zergen bidez, zerbitzu publikoei eta ondasun erkideei egiten dieten kontribuzioaren garrantzia ulertzea, arrazoibide kritikoak erabiliz.



14. Izadiko ondasunen erabilera arduratsua egitea eta ingurumenaren kontserbazioari laguntzea, gertakariak ulertuz eta interpretatuz, zergatiak aztertuz eta ondorioak aurrenez.
15. Planetako energia-iturrien erabilera arduratsua balioestea, ingurunearekiko errespetuaren kontzientzia hartuz eta hura aldarazten duten gertakarietako ahalmen kritikoa garatuz.
16. Teknologia berriak erabiltzea, ingurune seguruetan balio sozialak eta zibikoak garatuz.
17. Publizitateak kontsumoan duen eragina kritikoki aztertzea teknologia berriak erabiliz.
18. Bide-segurtasuneko arauak balioestea, zirkulazioko istripuen zergatiak eta ondorioak aztertuz eta prebentzioko ekimenak proposatuz.
19. Lehen sorospenak egiteko gai izatea eta prebentzio neurriak hartzea etxeko istripuak prebenitzearen garrantzia balioetsiz.



## ERANSKINA

### EBALUAZIO ADIERAZLEAK

#### 2. ETA 3. MULTZOAK

1. Norberaren nortasuna bereiztea duintasunean eta bere buruarekiko eta ikaskideekiko errespetuan oinarritutako estilo pertsonal bat sendotzearen bitartez.
  - 1.1. Duintasunaren eta errespetuaren balioa azaltzen du.
  - 1.2. Bere buruarekiko eta gainerakoekiko errespetuaren zentzua arrazoitzen du.
  - 1.3. Duintasunez eta errespetuz portatzen da.
  - 1.4. Ezagutzen ditu eta bere gain hartzen ditu bere nortasunaren ezaugarriak eta asertiboki agertzen ditu.
  - 1.5. Bere estilo pertsonalaren ikuspegi positiboa adierazten du eta bere buruaz egiten duen antzezpena eta gainerakoek adierazten duten irudia integratzen ditu.
  - 1.6. Onartzen ditu izateko eta jokatzeko beste era batzuk.
2. Norberaren potentziala garatzea, banakako eta partekatutako arrakastak lortzen ahaleginduz, interakzio positiboen eta bere buruaren irudi errealista eta onargarriaren bitartez.
  - 2.1. Taldean lan egiten du eta banakako ahalegina eta taldekoa balioesten ditu helburuak lortzeko.
  - 2.2. Arrazoiak ematen ditu lankidetzan dituen erantzukizunak bere gain hartzeko.
  - 2.3. Konfiantza sortzen du besteengan, lanak egitearen auto-ebaluazio arduratsua eginez.
  - 2.4. Ezagutzen ditu eta bere gain hartzen ditu bere nortasunaren ezaugarriak eta asertiboki agertzen ditu.
  - 2.5. Bere bertuteen eta mugen ikuspegi positiboa adierazten du hitzen bidez.
3. Erabakiak burujabetasunez, sormenez, ongi pentsatuta eta arduraz hartzea arazoan aurrean sortzen diren zailtasunak kudeatzeko eta frustrazioak eta sentimendu negatiboak gainditzeko.
  - 3.1. Sormenezko teknikak erabiltzen ditu arazoak aztertzean eta jarduketako proposamenak planteatzean.
  - 3.2. Ekintza positiboko proposamenak egiten ditu, integratzaileak eta orekatuak.
  - 3.3. Haztatzen ditu bere erabakien ondorioak.
  - 3.4. Erabakiak hartzen ditu egoera konplexu eta/edo gatazkatsuetan.
  - 3.5. Errespetuzko eta elkertasunezko portaerak erakusten ditu erabakiak hartzeko beste batzuekin eragin-trukeak dituenean.
4. Emozioak eta jokabideak erregulatzea haiek bizitzan aukeratutako helmugetara zuzentzeko.



- 4.1. Auto-kontrola aplikatzen du erabakiak hartzean, negoziatzean eta gatazkak ebaztean.
  - 4.2. Bere emozioen ezagupen eta identifikazio egokia egiten du.
  - 4.3. Bere sentimenduak, beharrak eta eskubideak adierazten ditu eta, aldi berean, besteenak errespetatzen ditu lankidetzako jardueretan.
5. Pentsamendu eraginkorra eta burujabea egituratzea, informazioa bildu eta ulerturik, inguruan duen errealitateari buruz ikuspegi desberdinetatik gogoeta egiteko eta, hortik abiatuta, hura hobetzeko proposamenak lantzeko.
    - 5.1. Gogoeta egiten du, bere pentsamenduak sintetizatzen eta egituratzen ditu.
    - 5.2. Berregituratze kognitiboko estrategiak erabiltzen ditu.
    - 5.3. Berregituratze kognitiboaren eta erresilientziaren balioa deskribatzen du.
6. Burujabetasuna eta ekintzaitza-ahalmena garatzea lorpen pertsonalak erdiesteko, era berean, ondasun erkideaz arduratzen dela.
    - 6.1. Segurtasunez eta motibazioz hartzen du parte eskolako arazoaren soluzioan.
    - 6.2. Sormenezko proposamenak egin eta bere gaitasunak erabiltzen ditu balio sozialeko proiektuei ekiteko.
    - 6.3. Arazo sozial eta zibikoak identifikatzen eta zehazten ditu eta eraginkortasun potentzialeko soluzioak ezartzen ditu.
    - 6.4. Bizikidetzaren arazoak zehazten ditu eta argi formulatzen ditu.
7. Komunikatzea, adieraztea eta eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan burujabetasunez, arduraz eta enpatiaz jardutea, komunikazioa eragozten duten faktoreak gaindituta.
    - 7.1. Argi eta koherentziaz adierazten ditu iritziak, sentimenduak eta emozioak.
    - 7.2. Egoki erabiltzen ditu hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioko elementuak, sentimenduekin bat etorririk.
    - 7.3. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioko trebetasunak erabiltzen ditu: aktiboki entzutea, bestearen lekuan jartzea, beste ikuspegi batzuk errespetatzea, errespetuz komunikatzen ditu sentimenduak eta ideiak.
    - 7.4. Identifikatzen ditu eguneroko egoeretan sentitzen dituen sentimendu positiboak eta negatiboak (bere buruarekin, familiarekin, ikastetxean, lagunekin).
    - 7.5. Entzuten duena interpretatuz eta zentzua emanez mintzatzen da.
    - 7.6. Taldeko proiektuetan kolaboratzen du aktiboki entzunez, beste pertsonetikiko interesa erakutsiz eta hitz egiteko motibatuak senti daitezen lagunduz.
    - 7.7. Ezagutzen ditu hainbat egoeratan komunikazioa blokeatzen duten elementuak.
    - 7.8. Enpatiaz hartzen du parte elkar trukean.
    - 7.9. Hainbat trebetasun sozial erabiltzen ditu.



8. Asertibitatea erabiltzea.
  - 8.1. Modu irekian adierazten ditu bere ideia eta iritzi propioak.
  - 8.2. Bere posizio pertsonalak lasai eta errespetuz aldeztu ditu.
  - 8.3. Hizkuntza positiboa erabiltzen du.
  - 8.4. Errespetuz berresten du bere burua.
9. Beste pertsona batzuekin mintzatzea pentsamendu partekatua sortuz, argudiorik onena aurkitzeko.
  - 9.1. Ondorioak ateratzen ditu eta zentzu egokia ematen die besteen adierazpenei.
  - 9.2. Behar bezala erabiltzen ditu entzute aktiborako estrategiak: argitzea, parafraseatzea, laburtzea, berregituratzea, sentimenduak islatzea.
  - 9.3. Hainbat ideia eta iritzi erlazionatzen ditu haien alderdi erkideak aurkitzeko.
10. Errespetuz eta malgutasunez jardutea, desberdintasunak ulertuz eta onartuz.
  - 10.1. Izateko eta jarduteko era desberdinak identifikatzen ditu.
  - 10.2. Errespetatzen eta onartzen ditu banakako desberdintasunak.
  - 10.3. Balioesten ditu beste pertsona batzuen nolakotasunak.
  - 10.4. Ulertzen eta estimatzen ditu desberdintasun kulturalak.
11. Gizarte-aurreiritzien ondorioak kritikoki aztertzea, eragiten dituzten arazoei eta sufritzen dituzten pertsonen sortarazten dieten eraginei buruz gogoeta eginez.
  - 11.1. Gizarte-aurreiritziak sortarazten dituzten arazoak aztertzen ditu.
  - 11.2. Gizarte-aurreiritziek gizarte-ingurune hurbileko pertsonentzat dituzten ondorioak azaltzen ditu arrazoiak emanez.
  - 11.3. Bere ingurune hurbilean hautemandako gizarte-aurreiritziak ikusi eta kritikoki epaitzen ditu, eta sormenez adierazten ditu ondorioak.
12. Taldeko giroa hobetzen laguntzea, lankidetzaren jarrerak erakutsiz eta errespetuzko harremanak ezarriz.
  - 12.1. Aktiboki parte hartzen du taldeko dinamiketan.
  - 12.2. Ikaskideen onarpena lortzen du.
  - 12.3. Nahitasun-trukean eta elkarren konfiantzan oinarritutako harreman emozional adiskidetsuak ezartzen eta mantentzen ditu.
  - 12.4. Sormenezko istorioen bitartez adiskidetasunaren ezaugarriak azaltzen ditu.
  - 12.5. Jarrera ona erakusten du ikasketarako laguntza eskaintzeko eta jasotzeko.
  - 12.6. Errespetatzen ditu arauak talde-lana egitean.



#### 4. MULTZOA

1. Lankidetzan arazoak ebaztea, gainerakoekiko jarrera irekia erakutsiz eta ikuspuntuak eta sentimenduak partekatuz.
  - 1.1. Konfiantzazko harremanak ezartzen ditu bere kidekoekin eta pertsona helduekin.
  - 1.2. Proiektuak garatzen ditu eta arazoak ebazten ditu lankidetzan.
  - 1.3. Jarrera irekia erakusten du besteekiko eta ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzen ditu ikasgelan duen besteekiko elkar truke sozialean.
2. Bizikidetzaren proposatzea, prestatzea eta errespetatzea, elkarrizketaren eta bitartekaritzaren bidez gatazka eraldatzeko.
  - 2.1. Errespetatzen ditu bizikidetzaren arauak eta taldean giro ona lortzen laguntzen du.
  - 2.2. Bere inguru hurbileko gatazka egoera bat deskribatzen du eta estrategia eraikitzaileak erabiltzen ditu soluzioak edo ordezkotza irtenbideak bilatzeko.
  - 2.3. Arauaren kontzeptua azaltzen du.
  - 2.4. Elkar truke sozialeko espazio desberdinetan bizikidetzaren arauak existitzearen premia argudiatzen du.
  - 2.5. Ikastetxeko antolamendu-arauei prestatzeko parte hartzen du.
  - 2.6. Bitartekaritzaren faseak jarraitzen ditu egoera errealean eta antzeztuetan.
  - 2.7. Hizkera positiboa erabiltzen du pertsona arteko harremanetan pentsamenduak, asmoak eta iritziak komunikatzeko.
  - 2.8. Gatazkan dauden aldeko emozioak, sentimenduak, balizko pentsamenduak eta ikuspegiak aztertzen ditu.
3. Erantzukizun, elkartasun eta justizia sozialaren zentzua ulertzea, gogoeta-, sintesi- eta egituratze-ahalmena erabilia.
  - 3.1. Elkartasuna erakusten du bere inguru hurbilean.
  - 3.2. Gizarte-erantzukizunaren eta justizia sozialaren zentzua arrazoiatzen ditu.
  - 3.3. Gizarte-desberdintasunak identifikatu eta kritikoki aztertzen ditu.
4. Dilema moral bat zer den ulertzea, eta dilema moralak ebaztea kultur desberdintasunen inguruko aurreiritziak hautemateko.
  - 4.1. Dilema moral bat zer den adierazten du.
  - 4.2. Juzku moralak egiten ditu.
  - 4.3. Dilema moralak aztertzen eta ebazten ditu egoera errealean eta antzeztuetan.
  - 4.4. Kultur desberdintasunen inguruko aurreiritziekin lotura duten dilema moralak ebazten ditu.
5. Norberaren balio-sistema elaboratzea, ikaslearen eskubideak eta betebeharrak bere gain harturik, eskolako egoerei buruzko epai moralak eginez eta, kasu



praktikoetan, dilema moralak ebatziz.

- 5.1. Ezagutzen eta errespetatzen ditu ikaslearen eskubideak eta betebeharrak.
  - 5.2. Eskolako egoeren epai moralak egiten ditu.
  - 5.3. Hainbat balio pertsonaletan oinarrituta –duintasuna, askatasuna, autoestimua, bere buruarekiko segurtasuna, arazoei aurre egiteko ahalmena–, justifikatzen ditu bere jokabideak.
6. Eskubide berdintasunaren aldeko aldarrikapena ez ezik, jaiotza, arraza, genero, orientazio afektibo-sexual, erlijio, iritzi edo beste zeinahi baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik baztertua ez izateko eskubidea errespetatzea eta gizarte-ingurunearen azterketan aplikatzea.
- 6.1. Giza eskubideen izaera unibertsala argudiatzen du.
  - 6.2. Diskriminazio-egintzak aztertzen ditu: tratu txarrak, gutxiengo etnikoen bazterkeria, kontzentrazio-esparruak, holokaustoa, gaixotasunagatik baztertea...
  - 6.3. Hurbileko desberdintasun- eta diskriminazio-kasuak kritikoki epaitzen ditu, bereziki, generoa eta orientazio afektibo-sexuala arrazoi dutenak.
  - 6.4. Eskubide berdintasunari buruzko autonomia-erkidegoko arautegi orokorra (Arartekoa, indarkeria matxistaren aurkakoa...) eta Hezkuntza Sailekoa (Koedukazioa, bizikidetzeta, inklusibitatea...) laburbiltzen ditu.
  - 6.5. Aurreiritziak identifikatzen ditu eta eskolako testuinguruan estereotipoak erabiltzetik eratorritako gatazkak aztertzen ditu.
  - 6.6. Diskriminazio-egoeren aurrean –ikastegian edo bere lagunartean gertatuak izan–, jarduera-neurriak aztertzen eta proposatzen ditu.
  - 6.7. Bidegabekeria-egoerak salatzeko ikastegian eta udalerrian dauden bideak eta moduak deskribatzen ditu.
7. Adierazpen- eta iritzi-askatasun eskubideak eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna babestu beharraren garrantzia adieraztea, azterketa eta sintesi lanak eginez.
- 7.1. Balioesten eta errespetatzen du adierazpen askea.
  - 7.2. Ulertzen, interpretatzen eta onartzen ditu besteen iritzi desberdinak.
  - 7.3. Kultura eta erlijio desberdinak, kultura eta erlijio horietako pertsonen pentsamoldeekin erlazionatzen ditu.
  - 7.4. Adierazpen- eta iritzi-askatasun eskubideei eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunari buruzko ondorioak aztertzen, gogoetatzen eta adierazten ditu.
8. Haurren eskubideen garrantzia ulertzea, egoera errealak balioetsiz eta, gizarte-testuinguruan, mutikoen eta neskatoen eskubide berdintasuna errespetatuz.
- 8.1. Mutikoaren eta neskatoaren oinarritzko eskubideak azaltzen ditu.
  - 8.2. Haur orok, mutila edo neska izan, laguntza jasotzearen garrantzia justifikatzen du.



- 8.3. Haurren esplotazioaren eta mutiko eta neskatoen trafikoaren ondorioak arrazoitzen ditu.
- 8.4. Eskubideen eta betebeharren arteko erlazioa adierazten du hitzez.
- 8.5. Kritikoki balioesten ditu haurren eskubideen inguruan Interneten azaltzen diren egoera errealak.
- 8.6. Sorkuntza libreko lanen bidez azaltzen ditu bai familian eta bai eskola-erkidegoan zereginak eta erantzukizunak izendatzean sexuaren arabera egiten diren diferentziei.
- buruzko azterketa kritikoaren ondorioak.
9. Bizitza zibikoan aktiboki parte hartzea gizonen eta emakumeen berdintasuna balioetsiz, bai eskubideei eta bai erantzukidetasunari dagokionez.
- 9.1. Kritikoki epaitzen ditu gizon eta emakumeen aukera berdintasunaren kontrako errespetu gabeko jarrerak.
- 9.2. Beste sexuko pertsonekin lankidetzan aritzen da eskolako hainbat egoeratan.
- 9.3. Hainbat motatako aktibitateak egiten ditu, generoa aintzat hartu gabe.
- 9.4. Sorkuntza libreko lanak egiten ditu komunikabideetan agertzen diren familiaren zaintzako erantzukidetasun faltako kasuen ikerketan oinarrituta.
10. Gizon eta emakumeen eskubide berdintasuna eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan duten erantzukidetasuna ulertzea eta balioestea, gogoeta-, sintesi- eta egituratze-prozesuetan oinarritutako argudioak emanez.
- 10.1. Argudioak emanez azaltzen du gizon eta emakumeen eskubide berdintasuna eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan duten erantzukidetasuna balioestearen garrantzia.
- 10.2. Sorkuntza libreko lanak egiten ditu komunikabideetan agertzen diren familiaren zaintzako erantzukidetasun faltako kasuen ikerketan oinarrituta.
- 10.3. Elkarrizketaren erabilera balioesten du harreman afektiboetako balizko gatazkak ebazteko.
11. Beste aukera batzuk errespetatzen dituen norberaren balio-sistema sortzea eta eskubide unibertsalean oinarritutako juzku moralak egitea.
- 11.1. Kritikoki epaitzen ditu hainbat egoeratako balio inplizituak, gizarte demokratiko batean bizitza erkidea eratzen dutenen arabera.
- 11.1. Juzku moral xumeak egiten ditu oinarritzko eskubide horien zehaztapen errealari buruz.
- 11.2. Ingurune hurbilaren ongizatean parte hartzen du oinarritzko eskubide eta betebeharren egikaritzan oinarrituta.
12. Demokraziaren ezaugarriak ezagutzea eta adieraztea eta balio zibikoaren garrantzia euskal gizarte demokratikoan.
- 12.1. Euskal bizikidetzaren demokratikoaren ezaugarriak adierazten ditu.
- 12.2. Gizarte demokratikoan balio zibikoek duten garrantzia argudiatzen du.
- 12.3. Euskal erakundeetan parte hartzeko mekanismoak aipatzen ditu.





- 12.4. Ikastetxean parte hartzeko erak praktikatzen ditu.
13. Herritarrek, beren zergen bidez, zerbitzu publikoei eta ondasun erkideei egiten dieten kontribuzioaren garrantzia ulertzea, arrazoibide kritikoak erabiliz.
- 13.1. Ulertzen eta balioesten du eta idatziz azaltzen du herritarrek ekarpenak egin behar dizkiotela gizarteari.
- 13.2. Zergen eginkizuna azaltzen du: herritarren bizi kalitatea hobetzeko baliabide sozialak ematea.
- 13.3. Zergak ez ordaintzearen ondorioei buruzko produkzio sortzaileak egiten ditu.
14. Izadiko ondasunen erabilera arduratsua egitea eta ingurumenaren kontserbazioari laguntzea, gertakariak ulertuz eta interpretatuz, zergatiak aztertuz eta ondorioak auresanez.
- 14.1. Interesa erakusten du inguruan duen izadiarekiko.
- 14.2. Ondasun naturalak kontserbatzeko zergatiak arrazoitzen ditu.
- 14.3. Ekimenak proposatzen ditu ondasun naturalen erabilera egokian parte hartzeko, zergatiak arrazoituz.
- 14.4. Gizakiak ingurumenean duen esku-hartzearen zergatiak eta ondorioak aztertzen, argitzen eta azaltzen ditu.
- 14.5. Oreka ekologikoaren defentsarako eta berreskurapenerako portaerak eta ingurumena kontserbatzearen aldekoak argudiatzen ditu.
- 14.6. Agenda 21 programari buruzko informazioa bildu du.
15. Planetako energia-iturrien erabilera arduratsua balioestea, ingurunearekiko errespetuaren kontzientzia hartuz eta hura aldarazten duten gertakarietara ahalmen kritikoa garatuz.
- 15.1. Energia-baliabide mugatuen kontzientzia hartu du eta energia-iturriak agortzearen ondorioak azaltzen ditu.
- 15.2. Energia-iturri jakin batzuk itxuragabe erabiltzearen eraginak ikertu ditu.
- 15.3. Osasunerako eta bizi kalitaterako kutsatu gabeko airearen premiari buruzko sormenezko lanak egin ditu.
- 15.4. Giza aktibitate kutsatzaileak errefusatzeko argudioak azaltzen ditu grafikoki.
16. Teknologia berriak erabiltzea, ingurune seguruetan balio sozialak eta zibikoak garatuz.
- 16.1. Teknologia berrien erabilera etikoa gauzatzen du.
- 16.2. Badaki teknologia berriak segurtasunez erabiltzen.
- 16.3. Kritikoki aztertzen eta epaitzen ditu ingurune digitaleko edukiak.
- 16.4. Datuen babeserako protokoloak jarraitzen ditu.
17. Publizitateak kontsumoan duen eragina kritikoki aztertzea teknologia berriak erabiliz.



- 17.1. Informazio digitalari buruzko azterketak egiten ditu pertsonak publizitateko iragarki bat ikustean sentitzen duten kontsumitzeko premiaren arrazoiak gai hartuta.
  - 17.2. Publizitatearen eraginari buruz gogoeta egiten du, eta sormenezko lanen bidez adierazten ditu ondorioak.
  - 17.3. Azalpenak egiten ditu beharrik gabeko kontsumo ohiturak kritikoki epaituz.
18. Bide-segurtasuneko arauak balioestea, zirkulazioko istripuen zergatiak eta ondorioak aztertuz eta prebentzioko ekimenak proposatuz.
- 18.1. Bide-hezkuntzako arauak errespetatzearen garrantziari buruzko eskolako kanpainetan laguntzen du.
  - 18.2. Zirkulazioko istripuen arrazoi nagusiei buruzko ikerketa egin du teknologia berrien laguntzarekin.
  - 18.3. Zirkulazioko zenbait istripuren ondorioak azaldu ditu komunikabideetako informazioetatik abiatuta.
  - 18.4. Gogoeta egin du zirkulazioko istripuak nola ekidin zitezkeen gai hartuta eta ateratako ondorioak azaldu ditu.
  - 18.5. Zirkulazioko istripuak prebenitzeko hartu litezkeen neurri nagusiak azaldu ditu.
19. Lehen sorospenak egiteko gai izatea eta prebentzio neurriak hartzea etxeko istripuak prebenitzearen garrantzia balioetsiz.
- 19.1. Gorputza eta osasuna zaintzearen garrantzia eta etxeko istripuak prebenitzearena balioesten ditu.
  - 19.2. Jokabide arriskutsu jakin batzuek osasunean eta bizi kalitatean izan ditzaketen ondorioei buruz arrazoitu du.
  - 19.3. Ezagutzen ditu lehen sorospenetako praktikak.
  - 19.4. Etxeko istripu ohikoenen aurkako prebentzio neurriak adierazten ditu.